

## Zirrara estetiko bera (+10)

Ilargia ezpainenetan  
Juan Kruz Igerabide  
Ilustrazioak: Luis Emaldi  
Erein argitaletxea

Hamabost urte igaro dira Juan Kruz Igerabideren *Begininiaren poemak* lehenengoz argitaratu zenetik, gutxitan bezalako zirrara estetikoa sentiarazi zigunetik. *Poemas para la pupila* izenburuarekin argitaratu zen, gero, gaztelaniaz, eta egilearen hitzatzearekin agertu zen bigarren edizioa, 1999an: «Liburua nik uste baino jende gehiagok bereganatu du, eta bozkarioz bete nau horrek, jakina. Bat eta beste ibili dira, eskoletan eta, poema horiekin jolasean, antzeko beste batzuk egiten, ilustrazio berriak asmatzen». Bitxia da: poemekin jolastu dio poetak, eta gaineratzen: «Guztia erdi jolasean hasi zen», eta bitxia da hori izatea halako poema sakonen jatorria —eta jarraipena. Baina jolasek bezala, poema hauek ere nola-halako araudia behar, eta hori haikuan dago. Poema hauen iturburuan egileak kantu zaharrak, poema herrikoiak eta ipuinak aipatzen ditu, eta, esan bezala, batik bat haikuak edo poema japoniar ezin laburragoak: «Bashoren haikuak. Iturria irekia zegoen; ura xirripan zetorren, eta ni, edan eta edan, gustura. Bada, Zizurkilgo hurrekin poesia lantzeko, haikuetara ere jo nuen: itzultzen hasi nintzen, eta haien antzera beste batzuk moldatzen; oroitzen ditut neguko goiz bakarti haiek, nire gelako leihotik mendira begira, eta haikuak sortzen».

Litekeena da norbaitek aurreko sarrerari luze iriztea, izan ere gaurkoan *Ilargia ezpainenetan* dugu hizpide, baina Igerabideren poemekin beste bitxikeria bat ere gertatzen da: badirudi beti liburu bera irakurtzen ari garela, poema berriak hari beretik etorriko balitzaizkigu bezala, eta berdin diola aurreko poema liburu irakurtzea, edo *Egun osorako poemak*, edo *Botoi bat bezala*. Hala ere argi dago batasun handiagoa dagoela *Begininiaren poemak* eta *Ilargia ezpainenetan* liburuen artean. Forma aldetik antz-antzekoak dira biak, biak ere Luis Emaldiren marrazki minimoekin datozkigu, eta bilduma berean gainera, hau da, Ereineko Auskalo Bumeran-en. Edukietan ere badute antzekotasunik: ilargia dugu bietan ardatz, eta ilargiaren kolorekoa dugu katilu esnea: «Nire bizitza katilu esnetan/ koilaratxoa jira-biraka./ Zoriontasun ikusezinaren azukrea/nahasten da oroitzapen zurian./ Amaren aurpegia agertu ez agertu/azpian, aitaren bekokia/eta zurrunbiloan, anai-arrebak.../Eta nik, dena edan behar/eta mingainaz garbitu ezpainak».

Bai, liburu bera irakurtzen ari gara, baina beharbada honako honi aitoren kutsu handiagoa dario, intimistagoa da, eta poetak bere familiaren albiste ematen digu, haien gabeziak utzitako sentimenduak bereziki. Urrats bat aurrerago emanda, maitasun poemak ia oharkabean kukuka dabilzkigu: «Izan

nuen/ andregai bat/ berak jakin gabe». Eta urratsa aipatu dugula, pausua — edo erabakia— dugu errepikatzen den beste irudi bat, erabaki beharrarekin, norabidearekin eta bakardadearekin lotua: «Alde batera utzi nuen/neska hura.../begiratu ez niolako».

Horrexegatik, liburuaren kontrazalean 10 urtetik aurrera dioen arren, oraingo hau agian gazte koxkortuagoentzat izan daiteke egokiagoa. Zentzu horretan, badago beste ñabardura bat akaso bi liburuak desberdintzera datorrena: lehen begininiak zirenak betseinak dira orain... Noizbait, nonbait entzun dugu gaztetxoentzat hezkuntza estetikoaren aldeko aldarrikapena, eta funtsean hori dakarkigu gogora liburuak: «Zientzia, goitik behera/ziztu bizian datorren/eskailera automatikoa:/eta nik gorantz igo behar». Hamabost urte igaro dira, liburuak desberdinak dira, baina zirrara estetikoa berdintsua.

Laura Sagastume